



ARARTEKOAREN ERAKUNDE-ADIERAZPENA

AZAROAREN 25a, GENERO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Genero indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna ospatzeko asmoz, Ararteko erakundeak aurten ere adierazi nahi du tinko gaitzesten dituela emakumeen aurkako indarkeria-adierazpide oro eta halako ekintzak eta jokabideak babesten dituen oinarri ideologiko sexista. Pertsona guztien oinarrizko eskubideak bermatzeko erakundea garenez, ziur gaude gizarteko gaitz gaitzesgarri hori errotik atera beharra dagoela, politika publikoen bitartez. Politika horiek emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu behar dute, eta printzipio hori gizarte-balio ukaezin bezala aldarrikatu.

Genero-indarkeriaren biktima gisa hildako emakumez etengabe ematen diren berriek agerian jarri dute, aurten ere, erakundeen funtzionamenduan akats sakon eta larria dagoela, baita gizartean elkarrekin bizitzeko oinarrien haustura ere; gai horrek lehentasunezko gogoeta eta ekintza eskatzen die botere publiko guztiei eta gizarte osoari. Sexua alde batera utzita, pertsona guztiak berdinak garela kontzientzia guztietan txertatzen ez den bitartean, bizirik iraungo dute emakumeen kontrako portaerek eta pentsaerek.

Datu gehiegik adierazten dute eskuratu ditugun tresnak ez direla behar bezain eraginkorrak genero-indarkeria desagerrarazteko; horregatik, erabakitasunez berriro hausnartu behar da tresna horien eraginkortasuna eta berriz aztertu behar dira dauden mekanismoak, gaiarekin zerikusia duten erakunde guztien baterako gogoetaren argitan: emakumeei arreta emateko eskumenak dituzten herri-administrazioak, legegintza boterea eta organo judizialak.

Euskadin dagoeneko badugu elkarrekin koordinatuz azterketa kritiko hori egiteko esparru guztiz baliagarri bat: *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. Hitzarmena*. Ararteko erakundeak apustu irmoa egiten du esparru horretan egiten ari den lanaren alde, eta hor parte hartzen duten erakunde guztiei eskatzen die beren ahalegina sendotu dezatela, erabat eraginkorra izan dadin.

Orobat, gizarte osoak erne egon behar dugu, emakumeen kontrako indarkeriara bultzatzen duten jarrera sexistak prebenitzeko eta salatzeko. Aldi berean, lanean aritu behar dugu genero-indarkeriaren aurkako gizarte-hitzarmen bat lortzeko, erakundeen eta gizarte zibilaren konpromiso bat. Horri esker, indarkeriaren infernutik ateratzeko behar duten babes, laguntza material eta giza maitasun guztia emango diegu matxismoaren tratu txarrak nozitzen dituzten emakumeei.



Bukatzeko, genero-indarkeriak emakume horien seme-alabentzat duen eragin larria azpimarratu nahi dugu, garrantzitsua iruditzen baitzaigu. Indarkeriak eta matxismoak eragin larria dute haien oraingo heziketan, eta ondorio izugarriak utziko dizkiete beren bizitzetan. Neska-mutilak ere genero-indarkeriaren biktima dira, eta arazo larri horri erabakitasunez aurre egin behar diote erakundeek.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 24a